EUSKALDUNON Egunkaria


Txepetx: «Euskaraz landutako edozein proiektu politiko behar du euskarak»

I. LOPEZ DE ARANA / **GASTEIZ**

Gaur egun, zenbait diskurtso ideologikoren endekatzea ageriagerikoa den honetan, ideologikoa ez den teoria berri bat hamaika gogoetagai sortarazten ari da euskalgintzan diharduen euskaldun askoren gogoan. Jose Maria Sanchez Carrion 'Txepetx, Filologia Anglogermanikoan lizentziatua, Gaztelaniazko Literaturan katedratikoa eta Euskal Filologian doktore da, hizkuntzen teoria honen sortzailea.

Gure gaurko solaskidea duela 40 urte jaio zen Cartagenan, handik lasterrera Ceutarako bidea hartuko bazuen ere. Bertan hizkuntza eta arraza aniztasuna zer den ikusteko parada izan zuen, bere bizi-ingurura berebereak, arabeak, espainiarrak eta abar biltzen zirelako. Honela, giro horrek lagundurik, beste hizkuntza batzuk ikasteko grina sortu zen berarengan. Zorioneko egun batean euskarari buruzko liburu bat egokitu zitzaion eskuen artean eta horrekin batera gure hizkuntza ikasteko irrika ernatu. Ondoren, Granadan, Salamancan, Bavieran eta Glasgowen ibili zen bere ikasketei jarraipena eman asmoz. «Salamanan Koldo Mitxelena ezagutu ezezik bere ikaslea eta laguna ere izan nintzen», ekarri du gogora.

Ikas-ibilaldi luze horren ostean, Euskal Herrira etorri eta nahigabeko ezustea hartu zuen. Izan ere, berak euskararekiko zeukan ikuspegia guztiz normala zen bitartean, Euskal Herrian bertan zegoena guztiz anormala zela ohartu zen. Txepetxek berak honela azaldu digu: «Egia esanda, euskal hizkuntza ez zuten ez euskal hiztunek baloratzen ez eta, askotan, euskaldunak ez ziren baskoek begi onez ikusten ere. Hortik, hain zuzen ere, etorri zitzaidan korapilo hori aztertu eta askatu nahia.»



OLALDE

Bere esanetan, «gizateriaren historian zehar bi diskurtso dikotonikoen porrota ikusi dugu: batetik, marxismoak gizartea aldatu zuen baina ez zuen gizaki berririk sortu; bestetik, diskurtso erlijiosoek eta mistikoek gizakia aldatu nahi zuten gizartea aldatu gabe». Txepetxek «integratzailea» eta «orekatzailea» den teoria bat plazaratu du. Bertan jakinarazten digunez, gure hizkuntzaren egoera konponbiderantz abiarazteko gizarte eta gizakiaren arteko harreman osagarria ezinbestekoa da, «gizartea aldatu behar dugulako gizaki berri bat sortarazteko eta gizaki berri bat sortarazi behar dugulako gizartea aldatzeko.»

Hala ere, Txepetxen ustez, bere diskurtso berria ezin da edozein lekutan gauzatu, horretarako inguruneak zenbait ezaugarri bildu behar ditu, besteak beste, hauexek: bertako bizilagunek heldutasunez jokatzea eta gizarte harremanak estuak eta solidarioak izatea. Txepetxek dioenaren arabera, Euskal Herrian, ia inon ez bezala, gutxienezko baldintza horiek betetzen dira.

Euskara eta politikaren arteko harremanari buruzko solasbidea urratuz, euskal hizkuntzalariak diosku euskarak ez duela beraren alde edo kontra euskara ez den beste hizkuntza batean mintzatzen denik behar, «eta bai euskaraz landu eta bideratuko den edozein proiektu politiko, eskuinekoa edo ezkerrekoa delarik ere» gaineratu du. Hori litzateke, bere iritziz, egora normal eta normalizatu baten ezaugarri nagusia.

SOSLAIA

Baskoa ez, euskalduna bai

Txepetxek gure herriarekin oso harreman estua du aspaldidanik. Izan ere, hasieran euskara ikasi eta gero euskal gizartearen errealitatea ezagutu nahirik, Bizkaian izan ezik, Hegoaldeko beste hiru euskal herrialdeak inoiz izan ditu bizitoki. Egun Gasteizen bizi da, SIADECOrako ikerketa lanetan jarduten duelarik. Bestalde, Cartagenan sortua izan arren, bere euskaltasunaren inguruan dudarik ez egiten eta hori honela arrazoitu digu: «Ni ez naiz baskoa baina euskalduna naizela ezin du inork ukatu, hizkuntza baten hiztuna izatea hizkuntza hori jakitea delako, modu oso edo ezoso batean jakin badaiteke ere.»

EGUNEKO DIANAK

'Labrit'

Bankakoa herriko Jean Michel Bidart artzain baxenabartarraren 'Labrit' ardi-txakurrak irabazi zuen igandean, Oñatiko 33. Nazioarteko Ardi-txakurren Txapelketan. / **9**


Muskildi

Oihenarten IV. mendeurrena dela eta Euskaltzaindia Donapaleun egiten ari den Biltzarrari Muskildi herriak eman dio hasiera, Oihenarti buruzko pastorala jokatuz. / **25**

Euskadiko Txirrindularitza Elkartea

Euskadiko Txirrindularitza Elkartearen Batzorde eratu berria, atzo aurkeztu zen Donostian. 1993an hasiko dira Euskadiko selekzioa egituratzen. / **19**

irrimarra



© Jon Zabaleta

LERRO GUTXITAN

❑ **MILA LAGUN INGURU HIL DIRA AZERBAIDJANeko** Karabakh Garaia eskualdean eta gehienak armeniarrak izan dira, adzerbaidjandarrek egindako erasoen ondorioz. Aipatu eskualdean, armeniar kristatuek gehiengoa osatzen dute eta Azerbaidjaneko Armadako iturriek jakitera eman dutenez, azken eraso hauen bidez, eskualde independentzizalea Armeniarekin batzen zuen lotunea moztea lortu dute. Lotune horretatik etortzen dira Armeniatik, Karabakh Garaiko armeniarrek euren aurka erabiltzen dituzten armak, beti ere azerbaidjandarren arabera. Independentzizaleek ordea, Azerbaidjaneko Armadaren erasoa geldiarazi dutela adierazi dute.

❑ **GORBATXOVI KOTXEA OSTU.** Mihail Gorbatxov, SESB zeneko lehendakariari kotxea ostu zioten atzo, bere izena daukan fundazioko garagetik. Hala ere, Gorbatxovek ez dauka gehiegi kezkatu beharrik, aipatutako fundazioak hiru kotxe erosi bait ditu berriki berak erabiltzeko, Boris Ieltsin Errusiako presidenteak, ordura arte erabiltzen zuen limusina ofiziala kendu ondoren.

❑ **FISCHERrek KASPAROVen AURKA** jokatu nahi duela adierazi zuen atzo. Hala ere, xakeari buruz idatzi zuen liburu batek emandako irabaziak Errusiako Gobernuak itzuli arte, ez dela munduko xake txapeldunarekin neurtuko garbi utzi zuen. Spassky-ren aurka jokatzen ari da egunotan.

❑ **ARRAUTZAK URRUTIRA.** Horixe zen iragan asteburuan Italiako Milan hirian jokatutako lehiaketa xelebrean egin beharrekoa: arrautzak hartu eta ahalik eta urrutien jaurti. Hori bai, bikoteka jokatu beharrekoa zen lehiaketa eta bigarrenak airean eta hautsi gabe jaso behar zuen arrautza. 58 metrora bota eta jaso zuten irabazleek.

Bi leherketa izan ziren Luzuriagan

Tafallako Fagor-Victorio Luzuriaga lantegian bi leherketa izan ziren atzo goizean. Bertan zeuden langileek zauri arinak izan zituzten eta ez zen inor ospitalera eraman behar izan. Edifizioan kalte garrantzitsuak eragin zituzten leherketen zergatia ez zen ofizialki ezagutzen informazio hau idazteko orduan, baina langile baten arabera gas likido bat erretzeagatik gerta zitezkeen.

ONCE
ASTELEHENA
23.764
ASTEARTEA
ASTEAZKENA
OSTEGUNA
OSTIRALA KUPOITZARRA